



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, **2018/06/06KOA**

Mahastizaintza eta ardogintzako 2017-2018 kanpaina lehor hasi zen, urrian eta azaroan bota ohi duen euria baino askoz gutxiago bota zuelako, eta horrek 100 litro baino gehiagoko prezipitazio eskasia eragin zuen gure inguruan euritsuak izan ohi diren udazkeneko bi hilabete horietan. Abendutik aurrera hasi zen egoera normaltzen, negu guztian ekaitz mordoa egon delako eta ur eta elur prezipitazio ugari ekarri digulako. Hortaz, negua hezea eta hotza izan da, baina hori ia ahaztu egin zaigun arren horixe da ohikoa.

Aurten inausketa lana zaila izan da. Iazko kanpainan, apirilean izotza bota zuenez, zeinak Arabako mahasti askori eragin baitzion, tratamendu desberdinak eman behar izan zaizkio mahatsondo bakoitzari, nolakoak diren eta nola eragin zion izozteak. Hartara, kostuak asko handitu dira, lan handiagoa egin behar izan delako hektareako eta inautari adituagoak behar izan direlako. Neguko prezipitazio ugariak ere ez dute lan horretan lagundu; hortaz, mahastiko lan handiena eta espezializatuena izan da.

Gainetan elur mordoa zela iritsi ginen apirilera, eta 300 litro euri inguruko prezipitazio pilatuarekin kanpaina hasi zenetik. Kopuru hori normala da, eta udazkeneko defizita konpentsatu du.

Apirilean zehar eta maiatzaren hasieran, muga normalen barruan egon ziren prezipitazioak; erori zena kopuru heterogeneoan erori zen, zonalde desberdinetan, ekaitzen ondorioz bota baitzuen ura. Tenperaturak ez ziren ohikoak izan, egunak hotzak izan baitziren oro har, eta beste egun solte batzuetan bero handia egin zuen.

Maiatzaren erdialdetik aurrera, laboreak abiadura hartu zuen, 15 eguneko atzerapena zekarrelako apiril bukaeratik. Une hauetan, mahats mordo ugari dago, eta horrek esan nahi dezake uzta ona datorrela.

Maiatzaren 11 eta 13 arteko goizaldean, zero gradu baino tenperatura baxuxeagoak egon ziren aurkintza eta mahasti zehatz batzuetan, izozten errazagoak direnetan, eta une horietan mahatsondoak 10-15 zentimetro inguruko kimuak zeuzkan. Izozte berantiar horrek kalteak eragin zituen mahasti jakin batzuetan, hala nola La Llana, Larrazuri eta Iscorta aurkintzetan, Bastidan, eta Gatzagako beste aurkintza batzuetan. Arabako Errioxako gainerako tokietan, kalte gutxi egon zen eta, edonola ere, mahasti jakin batzuetan. Izozteek eragindako mahastiak oro har oso ondo berreskuratzen ari dira, hotzak ez baitzituen kaltetu ernamuin guztiak.

San Isidro igarota, maiatzaren bigarren hamabostaldiaren ondoren, aire hotzeko poltsen etengabeko presentziak goi geruzetan behe presioak eta ezegonkortasuna eragin dute azalera, goitik behera garatzen diren eta ekaitzak dakartzaten lainoak eraginez. Ekaitz horiek ur kopuru handia utzi dute, nahiz eta modu irregularrean izan den, eta alarma eragin dute mahastizainen artean, kazkabar arriskua dakartelako. Zorionez, harriari dagokionez, Arabako Errioxan oraindik ez da kalterik egon elementu meteorologiko horrek eraginda. Tenperaturak ohi baino hotzagoak izan dira. Aldi honetan egondako euriak eta tenperatura hotza udaberri honen azken aldirako meteorologoen iragarri duten eguraldia izango da.

Izurrite eta gaixotasunei dagokienez, trips intsektuaren eta armiarma horiaren kaltea baxua izan da. Akariosi kalte handirik ere ez da egon; nolana ere, tratatu egin da, prebentzioagatik. Kezkagarriagoa da onddoak ager daitezela, gero eta baldintza gehiago betetzen ari baitira ahalbidetuko dutenak oiodioa garatu dadin, zeina urtero agertzen zaigun etsaia baita, eta mildua, zeina ez baita hainbeste ateratzen Arabako Errioxan eta ohikoa baita txakolinaren zonaldean.

Mahastizaina etengabe alertan dago hezetasun handiagatik, balizko kutsadura iragartzen du, eta hori dela-eta prebentziozko tratamenduak ezartzen ari da, horiexek baitira eraginkorrenak, eta atertzen duenean eta lurrak ahalbidetzen duenean makinekin sartuko da. Produktu fitosanitarioen gastua asko handitu da urte normal batekin alderatuz, eta kanpaina hasi besterik ez da egin.

Gaurko egunez, Arabako Errioxan oidio foku bat antzeman da, kontrolatu ahal izan dena, eta oraindik ez dakigu mildiu orbanik dagoen ala ez, nahiz eta Errioxako Autonomia Erkidego mugakidean, hain zuzen Huércanos herrian, maiatzaren 27an, milduaren lehenengo orbana aurkitu zen, eta itxuraz badira kasu gehiago goi Errioxan. Kontuan izanda Arabako mahastizaina profesional handia dela, Errioxakoa eta Arabako txakolineko mahastizaina diren bezainbat, eta nola dauden produktuak eraginkorrak diren, baldin eta azkenean mildiua agertzen bada, halaxe iragartzen baitute baldintzek, espero dezagun kalte handirik ez eragitea.

Laborearen zikloari dagokionez, mahatsondoa G eta H egoera fenologikoetan dago, eta mahats mordoak eta lore botoiak bereizita daude. Horrek esan nahi du atzeratuta gabiltzala urte normal batekin alderatuz. Hala ere, tenperatura igotzen den unean, lurrean pilatuta dagoen hezetasunaren ondorioz, litekeena da egun gutxi barru loratzea, eta horrek mahastiaren garapena normalduko luke datei dagokienez.

Udaberriko kimatze eta kimu berriak kimatzeko lanak egiten ari dira mahastizainak eta langile laguntzaileak duela hainbat astetatik, eta beste egun batzuk gehiago egingo dituzte.

Loratze unea bereziki garrantzitsua da mahatsondoarentzat, haren bilakaerak esango baitu alea zenbat mamituko den, eta ondorioz, nolako ekoizpena egongo den. Une horretan, gainera, ez da komeni tratamendurik ezartzea; izan ere, euriak mahatsondo lerradurak eragin ditzake. Edonola ere, baldin eta hezetasunak irauten badu, baliteke mahastizaina loratze fasean hastera tratamendua ematen, kaltea ez dadin handiagoa izan. Uda hasteko garatzen diren egunak –ekainaren 21ean hasiko da– oso garrantzitsuak izango dira, jakiteko nolakoa izango den kanpaina.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua